

Dohaineko alea



- ◆ JIPOITUTAKO emakumeentzat babes etxea Beasainen
- ◆ HARRIGARRIA: argindarrik gabe bizi da hemen jenderik!
- ◆ ZALDIBIA, Goierriko bertsolarien kabia
- ◆ LIERNIKO serora, Euskal Herriko azkenetakoa?
- ◆ INKESTA: gasolinaren garestitzea denon kalte eta galera
- ◆ “NEGU GORRIAK”: udazken beroa
- ◆ ERREPORTAIK eta elkarrizketak, Ikaztegietako azpi-euskalkian ere, eritziak, kartak (baita defentsa ministeritzari), txutxu-mutxuak, osasunaz, errezetaz, txisteak eta zer ez?

Plan on bat baduzu gogoan kontutan izan Kutxa.



Si quieres un buen plan
cuenta con la Caja.

Para que encuentres el Plan a tu medida, sólo tienes que decidir cuál o cuáles te convienen más.

Para que en el futuro, las cosas salgan como tú las hayas previsto.

PLAN DE PENSIONES

PLAN DE AHORRO ASEGURADO

PLAN DE AHORRO

Zure neurriko Plana aurki dezazun, zein edo zeintzu diren zuri hobekien datozkizunak aukeratu besterik ez duzu.

Etorkizunean, gauzak zuk aurrikusi bezala gerta daitezen. Zuk nahi duzun bezala.

PENTSIO-PLANA

AURREZKI-PLAN ASEGURATUA

AURREZKI-PLANA

AURREZKI-KUTXA
MUNICIPALA



CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Bertako txalaparta eta albistaria

9. zenbakia. 90.eko azaroa. Debaldeko alea.

Argitaratzailea: «Goierritarrak»
Kultur Elkarte. Dorre- etxea,
behea (Correos azpia).
Tfna: 889612. 124 posta kutxa.
Ordizia.

Arama, Zaldibia, Ezkio-Itsaso,
Gabiria.

Erredakzioa: Nekane Agirre, Jon
Mikel Arano, Xabier Narbarte.

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren
dirulaguntza jaso du. Ez ordea
Kultur Entitateentzako Foru Dipu-
tazioaren laguntzik.

**2. etapaldirako orain arteko
Udal-Herri laguntzaileak:**
Olaberria, Itsasondo, Altzaga,

Ale honetan kolaboratu dute:
Tere Irastortza, Aitor Larrañaga,
Ramon Ugalde, Andoni Sarriegi,
Patxi Zubizarreta, Rakel Guridi,
J.R. Elortza, Imanol Iturrioz, J.M.
Arandia, Mikel Aramendi, Joxan
Amundarain, Arantxa eta Lorea
Agirre, Goierriko Objektoreak, in-

kestatu eta berriemaileak.

Gure eskerrik beroenak: Era ba-
tera edo bestera laguntzen diguzue-
noi, gauzak errazten dizkiguzuenoi
eta nola edo hala parte hartzeko irri-
kitan zaudetenoi.

**Fotokonposizioa, maketazioa
eta inprimaketa:** ANTZA.

Lege Gordailua: SS 926/89



**«Goierritarrak»
Kultur Elkarte**

— Editoriala

Herrietako aldizkarigintzak aurreraka-
da nabarmena jo du azken urtean ez
bada bitan. Euskal herri eta bailadetan
zehir hedatzen ziren agerkariak ugal-
du ez ezik eratu eta finkatu egin dira.
Aldizkari «literario»-samarrek izatetik,
bokazioz herrikoia goak, hurbilagokoak
izatera pasa dira; militantziak eta afizioak
soldatapeko profesionaltasun militanteari
utzi dio bidea; «ahaldenkaritasun» ak
epeak zintzo eta zorrotz betetzeari; salneu-
rri sinbolikoez dohantasunari; duintasu-
nari ahal zen bezala egiteko erak, produktu
hobeagoetan bilakatu direlarik. Lagunar-
teko-edo ekimen ia pribatuek Udal eta
Instituzioengandikako dirulaguntza ia
erabatekoak lortzen dituzte, euskarazko
publizitateaz ateratakoaz aparte. Ale gu-

xitako argitarapenetatik milakakoetara
jotzeko joera nabaria izan da».

Honelako zerbait idazten genuen duela
dexente eta udako azken alearekin batera
aurrera egin nahi genuela iragartzen ge-
nuen. Gure intentzioak agertzeaz, errekon-
bertsio istoriez hizketa egiteaz aspertu ga-
ra; izango da posible?

Herri baten garapena (baita ekonomikoa
ere) kulturaren atzetik ez bada, honen pa-
rean doa. Kasu honetan gure eskualdearen
garapena ere jokuan egon liteke eta GOIE-
RRITARRA hori sendotzera etorri behar-
ko luke, indarberiturik.

Goierriko Unibertsitatea, noizko? Ez gara
ari Goierrirako unibertsitate baten eske.
Bere zentzu etimologikoan Unibertsita-
teak batasuna esan nahi luke. Bateratze bat,

zentzu bat ematea bailadari. Eta hemen ez
da horren arrastorik. Atomizazioa, disper-
tsioa da nagusi eta norbera bere bidetik. Ez
gatzazkizue ari aldizkariari buruz baka-
rrik, baina baita.

Urtebeteren ondoren haseran bezalaxe
gaudela dirudi. Esan liteke idea onak hai-
zea bezala pasatzen direla eta bestelakoak
errotu. Ez goaz esatera bederatzigarrenean
aborto jaio garenik, baina dirulaguntzeta-
rako eta bestetarako, gauza puntualetarako
ez bada, Goierrin dagoen borondate epela
medio, ezin gara hamabostekarian bilakatu
eta ahal den bezala jarraitu beharko dugu,
ahal den arte. Hori bai, gero dena itxaroten
da. Denok itxaroten dugu dena egin deza-
ten... batzuk. Allakuidaus!

«GOIERRITARRA» ETXEAN JASO NAHI DUT

NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA..... TLF.....

Izena eta abizenak _____

Helbidea _____

N.A.N. _____

- 1- Zerbitzu Militarrekiko kontzientzi eragozlea den pertsona naiz eta ez nago beharturik deklarazio honen zergatiak azaltzera, inor ezin bait daiteke bere ideologia, erlijio edo sinismenei buruz deklaratzera behartua izan.
- 2- Inork ez du konpetentziarik nire kontzientzi eragozpena aldarrikatzeko, onesteko edo eraginkor egiteko, indibiduo guztien askatasun ideologikoa eta erlijiosoa garantizatua dagoen heinean.
- 3- Ejerzitoari eragozten diodan modu berean, askatasun ideologikoaren oinarritzko eskubidea erabiliz, eragozpen hau gastu militarrekiko nire kolaborazioari hedatzen diot, hara nola Ordezko Zerbitzu Soziala betetzeari -erreserba egoeran bada ere- militarismoaren eskema berdinak isladatzen dituenez.
- 4- Eskatzen dut, ondorio guztietarako, ni naizen pertsona zibil bezala kontsideratua izan nadila eta ez nadila lotua izan autoritate militarretara.

_____(e)n 199__-ko _____-ren ____-an.

Sinatua

Neurrirako trajea ala neurriko zapatak?

Kaixo; soldaduska eta ejerzitoaren aurkako borroka pittin bat ezagutzen baduzue, gogoratuko duzue «kolektiba» izenez ezagutzen zen deklarazio hura. Haren bitartez objektoreak CNOCeri hainbat asmo eta arrazoi bide adierazten zizkion. Guzti hauek ekintza batek bideratzen zituen: INSUMISIOAK.

Denborarekin ordea estrategia hau ahula bilakatu zaigu. Arrazoi diferenteengatik. Bi dira nagusiki:

1- «Kolektibak» suposatzen zigun kontraesana, zeren eta alde batetik aitortpen honetan estadua eta bere akolitoen legitimitatea ukatzen genuen bitartean, bestalde gobernuak objektio legea martxan jartzeko eratu zuen CNOCera bidaltzen bait genuen.

2- CNOCen erantzunkizupen egoiteak, oztopo eta traba sortzen zigulako (azkenerako papeleoa izugarria zen, objektore berak ez zion antzik ematen bere situazioari)

Guzti hau ikusiz, GOIERRITARRAren ale honetan ezagutu dezakezen hau aukeratu dugu, egokiena delakoan bideak aurrera egiteko. Egokiena, une egokienean. Negura hurbiltzen gaituen Azaroa ez da hilabete gogoragarria; ez bada urteak betetzen dituztenentzat, zorian eguna, ez bada urtea betetzea non egin behar duten jakiten dutenentzat, alegia zoritxarrezko egun batean soldaduskarako zozketatuentzat.

Horietakoa bazara, zuri dagokizu erantzutea. Konforme bazaude, zure neurriko erroa eta zapatak emango dizkizue, soldadu egingo zaituzte, espainiar ejerzitoko morroia. Konforme ez bazaude, egonezati amorrura bitartean egon bazara, topo egin dezala ejerzitoak bere neurriko zapatarekin: INSUMISIOAREKIN.

Erabakia erreza da, beltza ala zuria. Horregatik, aspalditxotik osatzen dugun talde hau raso heterojeneoa da, erabaki batek biltzen bait gaitu. Alde hontakoa izan nahi baduzu, duda mudan bazaude, informatu nahi baduzu, gure borondatea eskeintzen dizugu. Orainartean, zortzi-

retan ostiralero Barrena Jauregian biltzen ginen. Aurten asmo bera dugu, adi egon, gure bileren nondik norakoaren berri izango duzu.

Ah, emakume hori, istoria honetako protagonista fisikoa ez bazara ere, guk uste

dugu zer eginik baduzula. Zer derizkiozu?

Goierriko Objektoreen Taldea

— Eritzia —

Legeak hala agindurik, erderaz egin behar

Ez da behin bakarrik gertatua, baina hainbesteren artean, datatutako bat bederen aipatzea komeni da.

1943ko Uztailaren 4a zen. Beasainen, herriko seme batek Meza Berria eman zuen Andre Mari Zeruratuaren Parroki elizan. Eta hantxe gertatu zen. Apaiza, etxeokak, ahaideak, lagunak,... euskaldunak ziren. Orduan ohi zenez, latinez egiten ari ziren elizkizuna. Sermoia izan ohi zen herri- hizkuntza erabil zitekeen une bakarra.

Egun hartako sermoia, Apaiz Berriaren laguna zen apaiz ataundar batek egin zuen. Dirudienek, ez zioten berak nahi zuen hizkuntzan egiten utzi, baina zergatia azaltzeko ausardia izan eta honela hasi zuen bere hitzaldia:

**«JAINKOAK HALA NAHIRIK
ETA LEGEAK HALA AGINDURIK
ERDERAZ EGIN BEHARKO DETBA»**

Eta erderaz egin zuen edo hobeto, egin behar izan zuen.

Honela joan da galtzen euskera Beasainen, Goierriin, Gipuzkoan nahiz Eus-

kal Herri osoan eta oraindik ere berreskuratzeko, ez da neurri bereko Legerik eta Indarrik sortu. Indarrez kendu ziztaiguna, borondatez berreskura dezagula esaten digute eta okerrera, euskaldun izeneko asko, gehiegi gauza onerako, oso ados eta oso epel azaltzen dela.

Hau bera ere ez al da gero, berriro eskuratzeko eta geureganatzeko aukera kentzea?

Orain Legeak, espainiera behintzat egin beharra dagoela dio eta euskera nahi bada egin litekeela. Hizkuntzak batera mintzatzen ez direnez, orain ere, euskaldun izeneko askok, honela esan ohi du:

**«DENEK ULERTZEKO...
ERDERAZ EGINGO DUT»**

Orduko Lege eta bortxaketei esker, gaurko egoera iritsi zaigu eta gaurko Lege eta axolagabeziei esker, zer iritsi-ko zaigu biharko?

Andoni Sarriegi Eskisabel



Ba al dakizu?

--Lazkao», «Beasain» eta «Ordizia» «Jaietan» urtekariak ez ezik, Goierriko beste zenbait herrietan beren urtekariak eta aldizkariak badituzte, hala nola, «Kantillape» hilabetekaria Itsasondon, --ale berezia festetan--, «Nondik» sei- hilabetekaria Ataunen eta Zeraingo urtekaria. Gainerantzean, «Ttularri» irakaskuntza ertainetako ikasleek aterea eta alderdi politiko eta gisakoeck argitaratzen dituztenak. OHOk ikasleei zuzendutako bailara mailako aldizkari baten proiektua ere ba omen da.

--Belen Maiza, Ordiziako kultura zinegotzia (EA) 10. eneko postuan dela hauteskundeotan Gipuzkoako zerrendetan.

--Zeraingo Udala ez da aukeratzen alderdi politikoen zerrenda sistimaz, baizik eta zerrenda irikietan. Hartara, herriak lan egingo duela uste duen pertsonen ematen dio botua.

--Harrikadak jotako erradio guztian, Legorreta-Itsasondo- Arama-Ordizia-Beasain, pinudiak erdoil-kolorez agertzen dira. Pinuei bakarrik afektatu zion harriak ez beste arbol motei eta Itsasondoko Goi-heritik hasita Usurberainoko pinuen gehiengoa «material»etarako gauza ez dela gelditu da. Papelerarako, berriz, gutxiago egiten du. Milioietako kalteak beraz.

--Teilatueta-eta harrijasak eragindako kalteei erantzuteko dirulaguntzak familia bakoitzeko diru-sarreraren arabera banatuko dira. Logikoa dena.

--CAFerri, dirudienez, ez zaiola batere gaizki etorri harrikadarena; teilatu eta beste hain zaharkituak bait zituen eta diru partidaren bat ere izendaturik omen zegoen konponketarako maiatza aurretik. Milioiak zituen aseguru etxe ezberdinetan uholdeen ondorendik arrisku guztien aurka eta orain dena berritu du.

--Olaberriako bidea konpondu eta txukun asko jarri da.

--Goierriko zaborteziaren obrak lehengo urteko bukaerarako bukatuko zirela iragarri bazen ere, eta aurtengoaren ondarean martxan jartzea espero da. Epeak atzeratu arren, oraingoan bai.

--Ura dela eta Zegama eta Altsasu arteko hika-mika eta auzia ez da atzo goizeko kontua, nahiz oraintsu eztanda egin duen.

--Txiribiton pailazo ospetsua (mutuarena egiten zuena: euskaraz etzekielako?) euskara ikasten ari da Lazkaoko Maizpiden.

--Mikel Mendizabal bertsolaria ezkontzen da. Zibiletik.

--Laister, Lazkaoko «Forjas Albisu» Zubierreka aldera aldatuko omen da enpresaren eta Udaren artean akordio batetara iritsi ondoren. Horrela, lazkaotar askoren aspaldiko nahi bat errealitate bihurtuko da. Izan ere, herrigunean horrelako hotsak...



Zer gertatzen da...

Gure ondare historikoarekin?

Hemen ageri den irudia Gaintzako San Migel patroiazen irudia duzue eta bere azpian latinezko izkriburen bat duen harria, egoera lastimagarrian eta desagertzeko zorian biak ere.

Garai batean espolio latzak jasan ditu Goierriko ondare artistikoak eta aspaldikoa ere ez da (ez dakit Ezkion edo non, parte honetan behintzat), norbaitek arte-lanekin sua egiten zueneko. Diputazioa-eta saiatzen dira ermittak eta halakoak birra-biltzen, baina ez ote dago gehiago egiterik?

Irakurri dugu...

Heldu zaigu udazkena

Eskolan txikitan ikasitako egunean izan ez bada ere iritsi zaigu udazkena eta urtaro hau hurbiltzean izaki oroantzaleturik hegoalderantzeko bidean murgiltzeko presaketari ekiten dio. Zer ote du udazkenak horrelako eragin izkutua sortzeko izaki bizidunengan? Eta beti hegoalderantz, behean tiro hotsak, eta aurreraxeago tiro hotsak; hesia gaintiezina izan arren hegoaldearen epelean dantzatzu, jira-biraka, beti hegoalderantz. Eta aurreraxeago han-hemenka ontto beltz bat, horbel azpian izkutaturik bi gibelurdin, eta goian, zeruan, txikitan ikasitako ikasgaia oraindik ez dutela ahaztu frogatu nahiz zenbakiak: 1, 7, V...

Gabino Murua. D.V. 1990-IX-26.

Nutrizio kanpaina.

Euskera gure ezaugarri.

Ni Ataungo baserri batetan jaio nintzen eta euskera «hutsezko» nekazal giroan eman nituen haurtzaroko lehen urratsak. Artean ez bai zegoen gaur dagoen komunikabideen «erasorik», eta gure mundutxo ahuturazko eta euskerazko moldeetan finkatua zegoen. (...).

Europaren batasuna datorren une honetan, Merkatu Batuaren legeak indartzen ari zaizkigunean, teknologiararen aurrerapenez ohiturak berdintzen direnean, euskera dugu gure ezaugarri nagusia. Euskal herriaren lehena, oraina, eta saitzen geran neurrian Geroa, europako eremuan.

*Jose Mari Agirre Eskisabel.
(Ekonomi Diputatua) D.V.*

«Crónica de Puebloarriba» (Suplemento Goierri).

1990go irailak bost Ordizian «euskal» festetan feria galanta, fruitu, barazki, oilar, begirale despistatu, tomate, baserritar saiatsu, alkaxofa... eta gazta, bai ongi irakurri duzue: Gazta.

Herriko frontoian baserritarrez mozturiko zenbait neskak gazta eskutan handik hona bueltaka eta jakitunak gazta dastaketaz keinu interesatuz egin ondoren, gazta erdi garailea kilo laurdenaz edo erosi omen zuen norbaitek.

Egun horietan ere «euskal» festetan alegia Goierri aldeko «Cofradia del queso

Idiazabal» eratu zen, dagoeneko, nahiz erderaz hitz egin, itxuraz edo gutxienez izena euskera ipintzen zitzaion, baina oraingoan oker geunden. Zenbait euskal kutsu nabaritzen zaie kofradeen janzkeretan, dena den baserritarkerian jausi gabe, baina pose dotorean daudenik ezin daiteke uka.

Felix Aiestaran. D.V.

Berriro martxan Arlote

Arloteko partaide hauek, «gertuko irratibat» egin nahi dute, «egunero zurekin kalean izaten den jendeak egindakoa» berriro hitzetan. Izan ere, jakin badakite akatsak egingo dituztela, baina hala ere, gogoz hasi dira etapa berri honetan.

Etapari berri honetan, informatiboak indartu nahi dira, eguneroko informazioa bildu eta batez ere herrikoa. Kanpoko informazioa jasotzeko, orain arte bezela, Tas-Tas agentziak baliatuko dira.

Idoia Arteaga. Egin. 1990-X-2

Harrijasa eta dirulaguntzak.

Dirulaguntzak etxebizitzek, enpresak eta ibilgailuak nozitu zituzten kalteak arintzera datozte. (...).

Ibilgailuen alorrean, dirulaguntzak aseguru polizek estaltzen ez dituzten autoren konponketen gastuak datoz, kasu honetan, konponketaren %20koak dira.

Etxebizitzaren kasuan, bi motatako dirulaguntzak izan litezke: lehena itzuli beharrik ez den diru laguntza, errenta, aurrekontu eta familia horren zenbatekoaren arabera. Biga, interes baxuko maila, aurrekoaren baldintzak kontutan izanik baita ere. (...)

I.A. D.V. 1990-IX-29.

Beasaingo komunikazio bideak

(...) Beasainen, ez alderdi politikoek ez partikularrok, ez dugu erreflexio seriorik egin, egun martxan edota estudioan dauden proiektuek izan dezaketen ondorioei buruz. Beasain komunikazio bide zentru garrantzitsua dela kontutan izanik ondorioak ager daitezke. Ez bakarrik komunikabide zentrua delako. Honez gain ere badelako zentrua industrial eta azkenik zerbitzu ekonomian dauden posibilitateak direla eta.

Mikel Zaldia. D.V. 1990-IX-19.

Goyerrikue izan nai'et nik'e

(...) Eta kasik mende bat geroago, Bilboko euskaltegietan euskalki berria esperimentatzen ari ziren bitartean, instantzia ofizialetatik Goierriko euskararen mitologia berria aldarrikatzen hasi ziren. Euskadi Irratian esaterako, kazetari tituluarekin batean arkadia berri horretako jaiotagiria eskatzen dizutela ere entzuna dut eta zait gaizki iruditzen. (...) Horregatik orain ETBko «Ederra eta piztia»ren doblajea Goierriko forma hiperjatorretara jo dutenean, ez naiz eskandalizatu eta neuk ere «goyerrikue izan nai'etela pentsau'et. Bai Orratio!

Joxean Agirre. Egin 1990-VIII-30.

Estadistikak

Azkeneko urte hauetan euskarari buruz diren estadistikak bildu eta zaku paper bete morderka edukiko genduke. Horietako bat erabili dut esku artean egunotan: hain zuzen ere, Siadecok egindako Beasaingo Azterketa Soziolinguistikoa, joan den Apirila aldera argitara eman zena. Ingeles haiek baino finago ibiliko ziren Siadecokoak, baina honatx nik ulertzen ez dudana datu estatistiko horien ondorio nagusia: Beasainen euskaldun-kopurua %47'4 omen da eta euskeraren erabilera %28'4. Beraz, bigarren datu horri kasu egitera, Beasainen, egunero eta orduero, ia hiru pertsonetatik bat aritu beharko litzateke euskeraz. Etorri nire herrira datu hori egiaztatza, eta berehalaxe geldiko zarete ahoa bete hortzekin. Ez bait dute uste %28'4 horren erdirik ere euskeraz hitzegiten entzungo duzenik.

Xabier Gartzia. D.V. 1990-X-3.

Euskera y trabajo.

Duela gutxi Udaltzain bost postulan betetzeko esaminak burutu ziren Ordizian. (...) Eta berriz ere erabili da euskera bide diskriminatzaile bezala, aurkeztu diren beste guztien eskubide berdina izanik, ez dute aukerarik izan Euskeraren oinarria ez betetzeagatik.

Ni naiz honetan ados nagoen lehena, denok ezagutu eta erabili behar dugula lur honen hizkuntza, baina ezin daitekeena egin da, hori dela eta, lana nahi dutenen eskubidea zauritzea. Daboreneak ongi dioten bezala, Demokrazia Sozialistako lehendakariak egunkari honetan argitaratutako artikulu batean.

*Juan Antonio Perales.
1990-VIII-19.*

Gasolina garestitzeak zer dakarzu burura?

Iñaki Garmendia, 39 urte, aparejadorea, zaldibitarra.

Normala da. Jende lapur horrengandik besterik ezin daiteke itxaron, beraiek manejatzen baitute merkatua. Petrolioaren benetako kostua oso txikia duk gasolinaren igoeraren proportzioan. Baina inpuestoe-kin bezala, edozein atzakiren bila dabilta. Harritzen nauna da jendea nola harritzen den beren mekanismoekin.



Ion Urdangarin, 25 urte, irakasle eta musikoa, lazkaotarra.

Gasolinaren igoera gaizki. Alde batetik, badagoelako gasolina erosia eta bildua eta bestetik, dolarren kotizazioa aurreko urteetan baino bajuago dagoenez, petrolioaren igoera ez delako izan horrenbestera-
noka. Bi arrazoi hauek egon arren igo egiten digute gasolina.



Maria Dolores Iruin, 45 urte, autoeskolako zuzendari, zaldibitar lazkaotartua.

Imajina dezakezu. Gu hortik bizi gara, gu-
retzako hori da dena. Erregaia igotzen ba-
da, zer egin?, segitutik ezin dituzu tarifak
igo. Igo beharrekoak igoak dauzkagu da-
goeneko aurtengoz, beraz kaltea eta galera
begibistakoa da. Lehen auto baten deposi-
tua bi mila pezeta eskasekin betetzen ze-
nuen eta orain bi milakin ez da betetzen.
Alde handia dago aste batzuetako tartean.
Garraioan dabiltzanak ere nozituko dute.



Arturo Iziar, 22 urte, langilea, ordiziarra.

Igoal dit, izan ere, enteratu enteratzen naiz,
baina ez diot garrantzia gehiegirik ematen,
pezeta batzuen gora-behera da, nire ka-
suan. Azkenerako, egia da diru mordoa
dela eta jende asko dagoela horrek izurra-
tzen diona. Dena dela, tontakeria asko da-
go, igo eta jeitsi, jeitsi eta igo.



Felix Garmendia, 29 urte, tabernaria, itsasondotarra.

Pentsa daiteke zer suposatzen duen. Bi hi-
labeteetan gorakada izugarria jo du eta
poltsikuan eta gauza guztietan nabarmen-
tzen da, baita tabernetatik dabilzenen
ohituretan. Ez dakit gasolinarenagatik ote
den, ez bait da denboraldi onena, baina
nabaritzen da. Uste dut erregimenean jarri
gaituztela.




Xabier Etxeberria, 31 urte, bidai-antolatzailea, zaldibitarra.

Kaltegarria dela uste dut gizarte guzti-
guztiarentzat. Zuzenki, zeharka eta saihe-
tsetik produkto guztiak errekin darabilzki
eta bereziki gure arlokoak: hegazkinetako
bidai guztiak igoera nabarmen bat izan du-
te. Bai eta ere bus eta bestelakoak. Baina ez
da harritzekoa, ikusirik zein den garraio
ministroa.



Imanol Murua, 29 urte, ardi-ilemoztailea, lazkaotarra.

Nire iritziz, bada, tejemaneje bat dela;
Golfoko asuntoaz baliaturik, gobernuek
eta interes ekonomikoek, trama bat mon-
tatu dutela beren interesak defendatzeko
eta gehiago indartzeko. Erreserbak ere ba-
daude eta ez zeukan zertan igo beharrik.
Esaten da Kuwaiteko petrolio munduko
produkzioaren %7 eskasa dela. Ez da arazo
ikaragarria; gertatzen da arma hori dara-
biltela. Eta horren kontra zer egin? Zer
esaterik ez dugunez...



Jose Agirre, 58 urte, industrialia, beasaindarra.


Pilo bat igo da esaten dutenez. Zer esan behar da, pozik nagoela? Geroz eta lapur gehiago dagoela? Estaduak lapurreta egiten badu, beren akolitoek ez dute galduko, noski. Adibide bezala, 70. hamarkadako azken krisialdian, petrolio upel horregatik 7.500 pezeta inguru ordaindu behar zuen

Estaduak. Eta gaur baino merkeago zen halere. Demagun gutxi gora-behera 40\$ ordaintzen direla gaur upelagatik, dolarra merke dago baina 2.500 pezeta inguru irabazten ditu Estaduak upel bakoitzagatik. European garestia dagoela gasolina, baina berehala iritsiko gara euren mailara. Eta atzean uzten ez baditu, nonbait hor!

GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02
20200 B E A S A I N



auto-escola ORDIZIA

LA UNION Y EL FENIX ASEGURAK

Padre Urdaneta, 10
Tfnoa: 88 72 76

ORDIZIA

TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILERRA

B i O K , C . B .



Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

EROSKI KAFETEGIA


Pintxo hotz eta beroak
Eguneroko bazkariak

Tfnoa: 88 83 31

ORDIZIA

G U R P I L

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51
Nafarroa Etorbidea, 3. - Telf: 88 21 03
20200 B E A S A I N



Inprimategia

Nafarroa Etorbidea, 9
Tfnoa: 88 94 82
20200 B E A S A I N



**MUJKA
LIBURUDENDA**

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:
Lazkao: 88 72 99
Beasain: 88 18 96
GIPUZKOA

Tratu txarrak jasandako emakumeentzako BABESETXEA

Aurtengo martxoan Babes Etxe bat sortu zen Beasainen, Goierriko hamabi udalen inizatiba eta onarpenaz, Diputazioaren babespean. Udal-Herri horiek hurrengoak dira: Gabiria, Ormaiztegi, Olaberria, Ataun, Lazkao, Zaldibia, Gaintza, Ordizia, Arama, Itsasondo, Idiazabal eta Beasain.

Oraingoz lau kasu, lau emakume bizi izan dira babes etxe horretan. Denetik pasatzea tokatu zaien emakumeak. Mundua nola dihoan, ikusitakoak ikusirik tratatu txarrak kasuak ugalduko balira ere, babes etxe hori hor dago, momentuz nahikoa.

Aurreikuspen guztiak positiboak direla eta, monitoreetako batekin egon gara.

Eman dezagun emakume batek tratatu txarrak jasaten dituela eta guzti horrekin hautsi-nahirik babestu nahi duela.

Babes Etxeko informazioa Goierriko udaletako gizarte laguntzaileen bidez jasoko du. Hauek, Blanca Bidondo eta Agurtzane Hidalgo, babes etxeko monitoreekin harremanetan jarriko dute emakume hori.

Bere kasua aztertzen da, datuak hartzen zaizkio, arazoari buruzko ikerketa-txostena edota istoriala eta pisu horretan sartzeko baldintzak betetzen baditu erabakia hartzen da.

Monitore hauek egiten dituzte gestio guztiak: demagun emakumeak ume bat duela, bada haurtzaindegia; lanpostu bat aurkitzea, ze emakume hauen gehiengoa etxekoandre da, senararen menpe dagoena. E.a.

Andre hauek pisuan sartuz geroztik zer garapen eta aldaketa ohi dituzten jakiten

interesatu gara.

GOIERRITARRA.- Zein litzateke tratatu txarrak sufritu dituen emakumearen perfila?

BLANKA B.- Ezkondua, gaztea (hogeitahirutik hogeitabostera), eta bere senar edo lagunak alkohol arazoak dituen. De-

B.B.- INEMeko formazio kurtsiloetan, EPA edo helduen heziketan eta bestela, ba, Eroskiko ikastaroetan kultur maila igotzen laguntzeko.

G.- Baina horrek luze jotzen du eta...

B.B.- Bai eta bitartean garbitzaile edo horrelako lanak aurkitzen ahalegintzen gara.

G.- Zuek, monitoreoik, beraiekin elkar bizi zarete?

B.B.- Ez, egunean behin edo beste joaten gara beraiengana, paperak betetz, abokatu-lanak eginez, laguntza morala emanez laguntzen diegu.

G.- Pisuan bizitzen jarri ondoren ez dute gizonarekin arazorik izan? Non bizi diren jakin nahia edo pertsekuzio kasurik izan da?

B.B.- Beno, horrela pisu batean jarri baino lehen denetik pasa dute. Orduan nahiko garbi daukate ez dutela itzuli nahi senarrarengana. Hala eta guztiz ere bat itzuli da. Pertsekuziorik eta horrelakorik ez. Kasu batzuetan jakin nahi izan dute gizonak, baina haseratik garbi uzten zaie ezin dutela pisu horietan sartu (txirrina jo arren alferrik), eta seme-alabak ikusi nahi badituzte katean zintatu behar dira. Umeak amarekin egoten dira eta ahaleginak egiten dira pisua anonimatuan edukitzeko.

G.- Salaketarik ba al dute tratatu txarrei buruz?

B.B.- Baliteke hori gertatzea baina orokorrean ez da gertatzen, ez dituzte salatzen, beldur haundia bait dute.

G.- Orain arte lau kasu izan direla aipatu duzu. Zer da, asko, gutxi...? Zer iruditzen zaizu, jende asko dagoela era



Blanka Bidondo, Babes Etxeko arduradunetako bat.

**Nik uste dut jende mordo bat
dagoela isilik, beldurra eta
dependentzia ekonomikoa
dela eta.**

pendentzia ekonomikoa dago tartean eta diru aldetik nahiko larri (gizarte-diru-laguntzekin). Emakume gazte horrek kultur maila baxua luke. Hori dela eta lana aurkitzeko garaian arazoak sortzen dira.

G.- Zer lan edo ikastaroetan hartzen dute parte?

horretan, ixilik, ezer esan gabe?

B.B.- Bai, nik uste dut jende mordo bat dagoela ixilik, beldurra eta dependentzi ekonomikoa dutelako, ze oso zaila ikusten dute beren kabuz bizitzea, lana aurkitzea...

Jendeak zer esango duenak ere badu zeri-kusirik.

G.- Zer eskatuko zenieke horrelako egoeran daudenei?

B.B.- Lehen pausoa ematea zaila izan arren animatuko nituzke, pena merezi bait du, bestela geroz eta egoera okerragoan aurkituko dira eta horrek ez dakar inongo konponbiderik. Beraz, irtenbide bakarra hau izango litzateke infernu horretatik irtezeko.

G.- Lehenengo egunetan nola konpon-tzen dira lanik eta ezer ez badute?

B.B.- Larrialditarako laguntza batzu ba-daude, edo subsidioa. Hala ere, inongo irabazirik ez badute, pisua ez dute ordaindu behar eta janari eta erroparentzat dirua he-mendik ematen zaie. Ez dute inongo ara-zorik, alde horretatik.

“Horrela, pisuan bizitzen jarri baino lehen denetik pasa dute”

**Nekane Agirre
M.A.**



MUJICA
Automobilak



BERRIA

- **FORD Mekanika-Segurtasuna:** Zure Ford berria babesten duen garantia ez da bukatzen 12 hilabeteko epean, zerorrek luza dezakezu babes hori 48 hilabeteetara, dituzun beharren arabera.
- **Herdoilaren aurkako 6 urterako garantia**
- **Bizia duen arteko garantia**
- **Merkatuko garantiarik onena.**

Errepide Nagusia, 1 • 419 Km.a • Tfnoa: 88 74 00 • BEASAIN

2.000.-AREN ATARIAN, MURUMENDI-PEKO LIZARDI AUZOAN

Harrigarria: argindarrik gabe bizi da jendea oraindik!

Halaxe da. "Iberduero" bezalako argindar etxeek milaka milioietako irabaziak badituzte ere, halako malkarretara argia eramatea ez errentagarria izan sobrare-edo, eta, 92.a inguruan izanagatik, argirik gabe daukate baserritar jende bat oraindik. Koba-zuloetara bueltatzeaz nork zer esan zuen?

Denboraren poderioz, gainbehera datorren Itsasondoko Lizardi auzoan lautatik bi baserri eskas geratzen dira. "Lizardi-behekoa" eta "Lizardi-barrrena". Biak argindarrik gabe.

Bigarrenkoa ez dago hutsik, baina ezta egunero habitatua. Lehen aipatua bai. Irastortzatarak bizi dira bertan. Hiru-anai arreba, Patxi, Joxe eta Anastasi. Zaharrenek 84 urte eta 70tik gora beste anai-arrebak. Sukalde zahar bezain txukunean hartu gintuzten oporretan.

GOIERRITARRA: Nola izan liteke? Nolatan zaudete zuek 90.ean elektrizitaterik gabe?

ERANTZUNA: Beti argirik gabe eta leku apartatuenetara eramane zenean, guk ere eskatu genuen oraindala urte asko ez, dozenerdia ez da izango. Ondorengo batean etorri zen injineroa zela esaten zutena beste bi lagunekin. Dena ikusten eta ibili ziren eta, hala, esan zuen argia honeratzek ez zeukala errentarik. Gastu handia. Bi familia ginen bakarrik gastu guztiei erantzuteko. Urkia auzotik linea botatzea zen eta denak gure gain zihoazten. Posteak eta alanbreak geurok jarri behar eta etxeko instalakuntza osoa ere gure lepo.

"Iberduero" k argindarra botatzea bakarrik, eta gainera, honek berak 300.000 pezetatik gora egiten zuen. Denetara, geundeneko familia bakoitzari hiru milioietatik gora kostatzen zitzaizun kontuak aterata. "Zertarako?", esan genuen guk, geuren gasarekin nola preparatuta gauden gutxi-asko...!"

Mundualdi bat horrela

Izan ere hala da. Sukalde eta kuartoetarako "Kanpin-gas" a darabilte, oilarrekin esnatu eta lokartzeaz gain. Hozgailua, berriz, gas butano bonbonarekin bereziki prestatuak.



Lizardi auzoa.

Anastasik dioenez, "Normal hozten du. Orain urte mordo anaia errejimenean eduki nuen eta arraia eta halakoak jan behar, denbora puska batean. Esaten nuen, Jaunak, nik ekarri arraia eta nun euki bear det. Feritik ekarri gero segituan jan behar, ez baitu irauten".

"Neska-mutil-xahar" rok, ohiturik, jarrita daude argirik gabe bizitzera. Beharko! Gazteenak ainaxe urte, 75 bat, daramatzate bertan, Gaintzatik beren gurasoek ekarri zituztenetik. Etxea txiki egiten omen zitzaiela Gaintzan eta hargatik egin zuten, antza, Lizardira.

Belar guztiak zutik jarri

26.ean

Lehen-lehenagoko kontuekin hasita, Lizardi ukitu zuen Beizamako Gorosagasti-

ko krimenaz badute zer esanik hirurak ere: "26.-ean, gaur eroriak dauden bi baserri ziren hemen eta hangoak egon ziren atxiztuta. Deteniturik. Etxe bateko nagusia, hiru seme eta bi alabekin. Zenbat moles-

tatu zuten! Ama ere eramateko asmotan etorri guardiak eta ama horri ondoeza egin, bere burua estututa. Urkian zegoen apaizak goardiak erresposabilizatu eta ikaratuta utzi zuten. Marroquin zen jueza. Batere kulparik gabekoak ziren hemen-goak, gerora ikusi zen bezala".

Geroztik ez da Lizardiren izena beste leku-izen bat baino ozenago esan, aidanez. "Ez, ez, orduan ziren Lizardi guztiak, ene! Belar guztiak zutik jarri ziren orduan! Lizardi gora eta behera, Gorosagastiko krimena eta istiluak! Periodikuek, berriz, nahi zuten guztiak jarri zituzten. Periodistatik ez dakit baina jende asko ibili zen 26ko hartan". Garia ereiteko garaia bide zen, azaroko 13ko gaua. Kartzelan kulpagabe egondakoen familiartekoak Tolosan oraindik bizi direla eta beraien artean hi-

tanoa erabiliz izenak eta parenteskoak aletzen dihardute. Gogorra izango zen hura horratio!

Ez dira ehun urte

Gogorra dirudien bezala baserritar anai arrebo eraman duten geroztikako bizitza. Gerra garaian ez zuten gorabehera handirik izan, ezpada 11 mikelete errepublikazale iritsi zitzaizkiela ihes Oriako Villafranatik hartzeke zegoen azpeitialdera. Gainontzean tiro hots handia, "gerra den lekuan tiroa bai!", dio ironiaz Joxek.

Gerrak eta pakeak pasa dituzte, lana gotik beren bizitzetan zehar eta opor gutxi. Makina bat lan egingo zuten arren, lanerako hortarainoko zerarik ez daukatela aitortzen dute, lotsaturik bezala, beren adinarekin.

"Egindako lana beti gastatzen joaten duk:

atzo eta herenegun, gaur egin eta bihar edo etzi batere seinalerik ez", sententziazten du Prantsiskok bixkor asko.

Kontu zaharrak aipatu eta Joxek hitza ateratzen du esateko, lehenagokoek ziotenez "Azken Juizio eta errematerako jarriko zirela bide guztietan tabernak eta nesken ihesi mutilak arboletara igoko zirela".

Murumendiko Damaren gertuen egon eta sekula ikusi ez. Beren bizilagun baten izebak ikusi bide zuen ordea. "Ardiak eukitzen zituzten eta, hor, mendi-goien, ardizain zebilela halako haize bat zeratu, sortu omen zen berarengandik gertu eta garo artean gordetzera joan zelarik, zirimola batean altxatu omen zen, garoak eta denak okertze adinako haizeak, eta txinpartak zeriola Aralar aldera joan omen zen. Ikara handia eman omen zion. Ehun urte ez dira izango horretaz baina hortxe-hortxe".

Hementxe!

Orain aisexeago bizi dira, ganaduak eta kenduak baitituzte, hegazti batzu eta baratza salbu, "Agraria"ren pentsioa jasotzen dutelarik. "Hiruok kobratzen dugu zer edo zer. Ez dute askorik ematen, deskuidatuz bai kendu aguro!". Eta hamabosteroko Ordiziako feria urruti egiten dela eta etxerako lain besterik ez dutela egiten diosku Anastasik.

Izan ere nola azokaratu barazki delikatuak. "Barkazioak kaletarointzat", diote komentziturik, "azienda eta ganaduei eguneroko eman behar diezu jatena". Mutilen oporrak, eskupetak baziren han zen ehiza. Beren mundualdiaz, "Hementxe!" esanda dena diote.

Soro ordeka gutxi eta azkenaldian "Insijnis" pinudiz josirik, malkarretan eman dute beren bizitza. Anai zaharrenak diona, "Soroak nonbait hor, baina belardiak malkar. Itsasondo ere zer duk bada! Aldapa asko diok? Ez, aldapa bakarra! Dena aldapa".


Jendeak "zibilizazio"rako joera hartu zenez geroztik eta azken hogeitapiku urtetan batik bat, ia bakarrik gelditu dira Murumendi maldako arkaitzartean. Bizilagunak ia erabat urritu zaizkie Urkiako auzoan endemas. Nahiz nahikoa bakardadean bizi, ezin liteke esan "basokoak" diruditenik edota "basa-pistiak" liratekeenik. Irratia badute (indar gehiago/gutxiagorekin), telebista komeni omen litzaieke, "badakizu, baserritarra espabilatzeko", baita ikasteko ere, baina ditzosozko interferentziak.

Periodikuren bat erortzen da, senideen bisitaldixoren batean, Lizarditik. Arantzazuko kalendariora txintxilik. Erloju behar handirik ez da. "Oraingo erlojua baino hobea zerabilten lehenagokoak buuruan. Goizean jan bat egin eta joan basora lanera. Ezeren hotsik ez, fabrikako tuturik ezta, ezer ez aditu eta eguerdian bere garaian, batere erlojurik gabe, punttu-puntuan bazkaltzera", eguzkiarekin manejatzen zirela eta zer kontu ez dugu dantzatzten.


G.- Bakardadea latza izan behar du hementxe. Behera aldera bizitzera joateko asmorik ez?

E.- Bakardadea? Bai, ia gu bakarrik gaude eta noski sentitzen dela. Halere, grazik, ez zaigu ezer gertatzen eta ezerren ezerrik. Agoantatu egin behar.

"Behera joan? Bai, laister eramango gai-



Lizardiko Anastasi.



tuzte behera", dio irribarre batez zaharrenek, kanposantura eramango dutela esan nahiaz bezala sokarroi asko, hurrengoa gaineratzeko: "hor behean, lau paretan artean, zer egin behar dugu guk? Horrelakoa da bizitza. Pertsona, neke askoren azpian, bizitza aurrera atera ezinik ibiliagatik ere, hantxe, bereak dituenetan, berriz hantxe".

Beren denbora guztian baserri eta ganaduarekin ohiturik, kalean bi pausu ezin omen dira eman hankartetik, enbarazotik, automobilak kendu gabe. Adin horrekin eta bestela ere kaminotan sartzeko beldurra. "Orain, kale-ixkinan bizi dena ohar-tuagoa egoten da. Baserritik jeitsitakoa tontoagoa gelditzen" dela asegurutzen digu Anastasik. Guk, ordea, beste gauza ba-

tzuetan egongo direla kaletarrok baino ohartuagok esanez egiten diegu arrapostu.

G.- Gaur edo bihar, Lizardirekin zer?

E.- Aurki batere ez, Lizardi. Gelditzen diren etxeak ere eroriko dira. Gu maizter gaude eta aldegin edo desargertzen garela, hona ez dator ezer. Orain pinua eta zikina besterik ez da eta pixkana-pixkana lurra jo.

G.- Bienbitartean, subentzioren baten bidez-edo lortu eta ohituko al zinateke argindarra edukitzera?

E.- Ezetz esan zigutenean erresijnatu eta hortara jarri behar. Jarriko balute, jakina ohituko ginatekela argia usatzera. Baina behin hala ezetz esanez gero zaila bilatzen dut. Baliteke, e!

"Iberduero"ren joerak zer bururaarazten dien galdetutakoan, "ez dakigu zer egingo duten diru guzti horiekin. Honerako ez dituzte. Dirua egin eta egin ari diren horiek, goserik daudela horiek; horiek ez direla asetzen!", esaten digutela belarrira agurtzen gara haiengandik, berriketaldi eta irakaskizun politak izan ditugun pozez.

Jon Arano
Mikel Aramendi

LAGUN ARO
SEGUROS ASEGURUAK

Nafarroa Etorbidea, 27 — Telefonoa: 88 62 50 / 88 31 00
B E A S A I N

MUTILOAKO LIERNIKO AMA-BIRJINAREN ERMITAREN BABESEAN IA 70 URTE

Maria Telleria, Euskal Herriko azkeneko serora?

Txindoki, Aitzgorri, Kizkitza, Irimo, Izazpi, Sta. Barbara eta Segura alderako bistak dauzka Mutiloako auzoa den Lierniko puntak. Zenbait eliza adinako bertako Ermita zaintzen, lustre ematen eta argizariak erretzen eman ditu 60 urtetik gora Maria Telleriak serora bezala bere anaia Alejoren laguntzarekin. Goierriko azken serora dela ziur, eta Euskal Herrikoa azkenekotakoa izatea ere gutxi fida.

Joan eta bertan

Ormaiztegiko bidetik nahiz Mutiloakotik, Lierniko tontorrera igoz gero -370 metruko altuera du-, "Mujika" eta "Patxi" erretegiak ikus daitezke nabarmen. Ezkontza eta bataioak ospatzeko, leku alaia izanagatik-edo askok aukeratzen dutena. Aitzakia Lierniko Ama-birjinari altxatoko ermittan zeletzea funtzioa.

Haren atzekaldean kausi daiteke hiru eratara deitzen zaion arren bat bera den etxea: "Serora-etxe", "Seotegi" edota "Casa Seroral". Haruntza ailegatu eta elkarrizketatxo bat boteprontoan egiteko asmoa genuela adierazitakoan, "*denbora hartu egin behar bada, behar denerako*" esanez ongi etorria eman zigun bertako serorak eta "*nik, Maria, serbitzeko*" izena zuela, ohi-tura zaharren baten isladapean eman zigun bere berri.

Itzal ederrean beroa denean, lehen ikuilu-edo zen eta gerora beren iloba duten J.M. Telleria artista ezagunak konponduko zien Seotegiko tabernatxoaren atarian, txorien txioen artean hartu gintuzten uda honetan. Euskara ederra dute, bi anaiak ere, eta ari-na, bai eta Goierriko euskaraz kanpoko zertzeladak, artzainen jira-birak medio agian, hemen euskara batuagoa zatekeela pentsatzera iritsi ginelarik.

Gustora denok.

G.- Zenbat denbora daramazue hemen eta zein da zuen egin beharra?

E.- Hemen eramango ditugu hirurogeitazazpi bat urte, 22.etik edo horrela. Aurretik datorkigu. Gure izeba izan zen hemen serora. Aita ere sakristaua eta ehulea genuen. Ama hida bost anai-arreba gelditu ginen gu. Norabaitera etorri behar -eta, izebaren-gana etorri ginen. Hark hartu gintun. Hark zeraman Lierniko ermittaren martxa.

Zer lan izaten zen? Bada oraintxe bezala: lorak jarri eta lorak kendu; atea ireki eta

atea itxi; ermita garbitu... Betti aldatzen da, eztaiak direla, bataioak, hau dela edo hura dela, badakizu...

G.- Aldaketak ekarriko zituzten urteak, beharbada.

E.- Aldaketa handirik ez da izan. Berdin xamar. Argizaria eman? Bai, orduan argizaria ematen zakon zoruari. Orain, obrak egin zituzten eta, ez dago argizari eman beharrik, nahiko brilua dauka eta. Denbora joan ahala bajatu egin gara gu. Izeba bizi zen bitartean serora eta sakristaua ziren. Orain serora bakarrik eta nire anaia Alejo languntzaile soilik.

Fedearen kontuak

"Aurki baterez" diotsa aitaturtako anaiak, ironia puntu batekin. Garai batean egunero ematen zela meza esango digu gero. Mutiloako herria txikia bada ere Parrokoa eta Koadjutorea ziren lehen eta txandakatu-tuan etortzen ziren auzo are txikiago honetara. Orain, hori "gastatu" da, parrokoa hil zenez geroz, eta igandero dute meza, Segura, Zerain, Zegama eta Mutiloako elizkizunak betetzen dituzten Segurako praile frantziskotarrak emanik.

G.- Goierriin fede arraroren bat badela esaten dugu guk eta Ama-birjinaren agerpenez hasten gara hitz eta pitz. Itsaso- Ezkion agertu zenekoaz, berauen garai-modutxoan gaineraz eta, nolatan izan zen, bada, Liernin agertu zenekoa.

E.- Makina bat buelta egin genuen Itsaso-Ezkiora! Ez dakit, azkenean azaldu zen-edo, guk behintzat ez genuen ikusi...

Liernin, berriz, Ama-Birjina azaldua dela esaten zuten hemen, gure aurrekoek. Jaki-



zu...! Ermita egin zutenerako egia izango da. Esaera bat bada, orduan ermita beheko zulo horretan egin nahi izan omen zuten, zubia dagoeneko horretan. Eta egunez egindako lana, gauez tontort honetara etortzen omen zen! Ama-Birjinaren lana izango zela pentsatzen dugu.

Hala, horko, tontor honetako pareko baserriko jendeak esan zuten zaitu egin behar zutela, ea bada zer edo zein ibiltzen ote zen zeregin horretan. Giltza-zulotik begira jarri dira gauez eta "*Aida gorrie / aida zurie / or beida dagon orri / galdu dakiola begie*", aditu zenerako begia galduta gelditu omen zen baserrikoa. Ama-Birjinak hala nahiko zuen-edo, hala behintzat hemen egin zuten ermita azkenean.

Alejok hartzen du hitza esateko, "*itxuraz, egunez baino gauez langile indartsuagoak, egindakoa igotzeko!*". Eta ez dakitela bada, ez dela ikusitakoa baina bai aditutakoa eta "*txiste tipoan ez bada hartzen ixtorio hau, nahikoa lan!*" Beraz, Egunez ezipazen



Lierniko ermita.

ere gauez azaldu zela Ama-Birjina!

G.- Zuen lan-klasean izan ohi da bitxi-keriarik, ezta?

E.- Izan da bai, elizako lanean, horiek ia gastatu ziren. Baina izan ohi da, bai, ofrezimenduak egiten zituzten baserritarrak-eta hegaztien eta ganaduen suerterako. Esate baterako, txita-taldeak ateratzen zituztenean, haien suerterako oilandak ofrendatu Lierniko Amari eta gero oilanda haiek ekartzen zituzten; behiak txala ondo egiteko, botila bat esne eskeini. Gero, argizaria berriz, ganaduaren gorputzean buelta hartzen zuen guztian roiloan jarrita, lehen estilo horretan etortzen zen baserritarra, argizari roilo hori eskainiz ermitan erretzeko.

Bada ixtori bat, egitazkoa, gertatu zitzakona berak kontatua. Baserritar honek zeukan oilanda bat donatu du ermitarako. Ikusgarria omen zen oilanda, eta pena ematen, pena, hura ekartzea; eta agindu zuena ekarri ordez oilanda erreux bat ekarri du. Etxera bueltan joan zenerako hilda aurkitu izango zuen beste oilanda bikain hura! Hori gure garaian gertatua da e!

G.- Geroztik zer izan da hemen partikularrik?

E.- Kasu xebererik ez behintzat. Beti izan da jendea hemendik, uda partean-eta, erromeriak direla eta medizaleak direla. Orain gehio, errestorante hauekin, ezkontza gehiago, komunioak, lehen hortatik ez zen. Urte batzuetan atzera bazegoen ere, ezkontzari eman diola jendeak.

Obra asko egin dutela inguruan: lehen kaminorik ez zen, oraindik zenbat denbora da bada Mutiloatik bueltan bidea egin zutela? 10-en bat urte edo gehixeago? Ormaiztegi bide hori berria da. Horrek egin dio dena honi, kaminoak, jendea igoaraztea, mogimendu guztia horrek jarri du. Egin artean hau hilik zegoen. Lehen mendizalea, trenetik jeitsi Ormaiztegin eta oinez zetorren. Beste bide zelai bat ere bazen, oinezko jendea handik etorriko zen Zegama, Segura edo Ataundik.

G.- Eta, ermita inguruko parajeok berdin diraute?

E.- Eliza berritu da, raspatu, pintatu, gurutze argiduna jarri... Bestalde, bakarrik

gingen orain hamabi urte gure taberna kokor honekin. Orduan ere bakarrarentzako nahikoa lan izaten zen asteburuetan. Orain bi berri egin dira, hobeak eta horiei bidaltzen dizkiegu.

Alejok 69 urte ditu eta Mariak "gehixea-go", eta osasun ederra itxuraz. Agrariako pentsioa jasotzen dute "lana ez egiteagatik dirua agindu: zertarako lan egin?", dio anaiak. Entretenimendurako Serora-etxe atzekaldeko baratza (aspaldi- aspaldian kanposantu izanikoa apika), eta Larraitza eta bestetan adina eztei izaten denez, "zapatu-igandetan astintzen gaituzte", baina gainantzean, sanidadean, ahal duten lasaien bizi direla aitortzen dute.

Euskal Herriko azkenekotako seroraren aurrean ote gauden galdetu diegunean orrietan jartzeko, "makinatxo bat lan debaldeko" egin beharreko ofizioa dela eta "debaldeko lana nork nahi du", galdera eginez ezkor agertzen zaizkigu. Denborak esan ohi du.

Mikel Aramendi

Artixta berexiak haietxek!

G arai batean, emakumeek beren haur jaio berriei bularra eman ezin zieten (ba al zen biberoirik?), "nodriza"k edota inude edo hazama delakoekin konpontzen zuten arazoa. Animaliak ere izan dira bestalde gizaseme prestu askoak hazi dituztenak, literaturak eta historiak desaigunez: Romulo eta Remo, Mogwli, ume-otso zenbait...

Euskal Herrian ordea, gehienetan amaren karguko lana ohi zen umearen haztea eta hezte. Besteen zai dagoena gaizki dagoela ere jakina da. Baina segidan esango dudana hortik horrerakoa da. Harriturik utzi nau zahar-berriak.

Hemen, Goierriin, ba omen ziren, ama-berriek ugatzikarak, edo beste era batera esa-

teko, bularrak gogor, minduak eduki eta umeari esnea edatetik eman ezin zietenean, estuasunak erreparatzen saiatzen ziren gizonetxoak. Bat behintzat izan zela aditua daukat. "Aldaba" deritzon batek gure amari esana.

Hau da, nutrizio kanpainako adibidea erabiliz, bakoitzak berea berei eman ezin edota umeari emateko apropos ez zegoenean besteei deitzen zitzairen. Aho-artistei. Titi-artistei. Diti-buruak zupatzea, lardas-katzea ogibide zutenei. Esnari kau-zuloa ireki eta bidea libratu behar eta imajina itzak zenbat gusto hartu eta emango zuten!

Adarrak ere oso urruti ez zirela ibiliko zenbait gizonen buruetatik pentsatzen dut, zenbait kasutan. Baina, harridura bat pasa

orduko datorkit best bat: Goierriira soilik mugatzen ote zen usadio hori?

Ez da oso listoa izan behar ogibide hori leku askotara zabalduko zela ondorioztatzeko. Horretarako aproposa ez al da ba? Asko leitzen dut, kontu zaharrak eta berriak, baina honetaz ez dut ezer aditu egundo. Gustora entzungo nioke edonori, honen berri zehatzago emango balit.

Halako opizio peleginoak erakusteko eskola berri bat norbaitek irekiko balu, berriaz, aurreneko ikaslea izan nahiko nuke. Jenderik ez zaio faltako, ez horratio!

Directoriak

— publizitatea —

LAN KIDE AURREZKIA (Ψ) EUSKADIKO KUTXA

190
Sukurtsal

164
Kooperatiba
Elkartu

20.000
Lanpostua

230.000
Milioiko Aurrezkia

**Euskadiko
Kutxa**



**CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA**



San Pedro, 22 - Teléf. (943) 76 15 75 - BERGARA
Juan Carlos Guerra, 1 - Teléf. (943) 79 29 95 - ARRASATE
J.M. Barandiarán Emparantza, s.n. - Teléf. (943) 88 99 88 - ORDIZIA

NAHIKO AL ZENUKE HOBE ENTZUTEA ETA ULERTZEA?

Jaun-andere agurgarria :

Mundu osoko miloika pertsonen antzera, zuk ere posible izango duzu entzute eta ulertzearen plazerra berriro ere aurkitzea Starkey laborategi eta **"Starkey 7"** audifono belaunaldi berriei esker.

Berraurkitutako diskrezioa.- Entzumenezko kanalearen neurri zehatzera egina izan denez gero, **"Starkey 7"**-k entzumenezko arazoak dituztenen kezkarik haundienari erantzuten dio modu estetiko batez : beraien zailtasunak, **jakitera eman gabe**, bizi izatea diskrezio osoz. Audifonoen belaunaldi berri honek sekretua ongi gordetzen daki.

Berraurkitutako atsegina.- Urra bera baino txikiagoa, 5 gramu baino gutxiago pisatzen duela, **"Starkey 7"** seriea ukaezinezko erosotasuna dakarren teknoloji sofistikatu baten ondorioa da.

Berraurkitutako seguritatea.- **"Starkey 7"**-k entzumenezko egokitasuna hobetzen du neurri haundi batean. Ahalmen haundiko pila txiki batekin dabilen zirkuitoak larsen-en arriskua baztertzen du (erre-troelikadura). Soinu indarraren erregulaketa era erraz batez egiten da.

Berraurkitutako konbibilitatea.- Estereofonia moduan erabili ezker (belarri bakoitzean audifono bat), **"7 Starkey"** serieak posible egiten du soinuak eta hitzak berehala aurkitu ahal izatea. Gainera, giro iskanbilatsuetan elkarriketak ongi uler ahal izatea posibilitatzen du. Lortutako soinu erliebeak erosotasuna hobeagotzen du .

Lehen, orain eta beti, zure entzumenezko arazoen bitartekari pribilegiatuak izan nahi genuke.

Azkenik, jakin ezazula **"Starkey 7"** seriea pertsonalki aurkeztu eta eskeiniko zaizula **"ATEAK ZABALIK IHARDUNALDIAK"** direla eta egingo diren honako leku hauetan.

J. LARRAÑAGA OPTIKA ORDIZIAN

J.M. Barandiarán Enparantza, z.g. 88 99 88 Tel. Azaroaren 5'etik (astelehena) 8'rarte (osteguna)
ARRASATEN

Juan Carlos Guerra, 1 79 29 95 Tel. Azaroaren 12'tik (astelehena) 16'rarte (ostirala)
BERGARAN

San Pedro, 22 76 15 75 Tel. Azaroaren 19'tik (astelehena) 19'rarte (osteguna)

Audioprotesi Zuzendaritza

GOIERRIKO BERTSOLARIAK

Zaldibia, asteroko bertsolarien kabia

URTEAK daramatzate Goierriko bertsolariak Zaldibian biltzen. Astero-astero mahaiaren inguruan egiten dituzte beraien bilerak, bertan bertsolaririk beteranoenak eta gaurko belaunaldi berria osatzen duten Goierri inguruko bertsolariak elkartzen direlarik.



Goierriko bertsolari helduak.

Udazkenean hasi eta udarako oporrak inguratu arte, ostegun iluntzeetan, Zaldibian izango dugu bertsolari goierritarren puska handi bat. (Horie-taz kanpo Seguran bildu ohi dira se-gurar eta ingurukoak).

Zahar eta gazte mahai-inguruan

Beren asmo nagusia elkarrekin une goxo bat igarotzea izanik, ezin izango zaie falta afari eder bat aurretik, itxura denez, afariak sortzen bait dizkie berriketarako indarrak.

Bertsoak ere, noski han izango direla, bertso munduari loturiko komentario, no-tizi eta istorio berri eta zahar gehienak be-zala.

Bilera edo elkarganatze hauek zenbate-rainoko balioa duten ez dago ikusi besterik. Hor izaten ditugu Patxi Iraola eta Floren-

tino Goiburu laister Euskal Herri osoak omenduko dituen bi bertsolari ezagun.

Eta beraien babesean, berriz, bertso mun-duan izen handia lortu duten beste goie-rritar bertsolari batzu ere, nork ez ditu ezagutzen esaterako, Euxebio Igartzabal, Iaki Murua, Mikel Mendizabal, Xabier eta Nikolas Zeberio anaiak; edota, landare gazteagoak garen Juan Ramon Gerriko, Joxe Ramon Elortza eta hau sinatzen due-na.

Denok ados izango gara, hala ere, "Al-tzo-Txiki" ezizenez ezaguna den bertsolari zaldibitarra abonaterakoan, beraren gain egoten bait da afariaren prestaketa, leku egokiaren aurkikuntza eta bilera hauek aurrera eramateko beharrezkoak diren beste hainbeste xehetasun eta lanen ardura.

Lehen aipatu bezala, garrantzizkoena el-karrekin sortzen den giro berezi hori bada

ere, ezin dira ahaztu bilera horiek eman dituzten beste zenbait berri pozgarri, esate baterako, Goierriko Bertsolariek Txapel-ketan eskaintzen duten maila bikaina edota "Goierriko Bertsolariak" izenburupean ar-gitaratu zuten diska eder hura. Bilera hauetatik sortuak ekimen guztiok ere.

Nekez harrapatuko ditugu bertsolariak lo, eta jo eta su dihardute lanean, Zaldibiako Iraola eta Idiazabalgo Goiburu bertsola-rien omenaldia dela eta, egun handia iris-tean egitekoak eta aurretik Goierri mailan prestatu nahi dituzten ekitaldien antola-kuntzan buru-belarri sarturik daudenez.

Ez dira txantxetakoak bilera hauek, beraz, eta horren fede emango digu segidan Iraola zaldibitarak.

Xabier Narbarte



Gerriko eta Elortza gazteak.

G.- Zerk erakarri hintuen Zaldibiako bileran jarraitzeko?

J.R.- Kuriositateak. Bertsolari handi ho-

leretako prestaketa lana?

J.R.- Txapelketa aurretik gaia jarririk ari-
tzen gara. Baina niretzat garrantzi gehiago

J.R. Gerriko idiazabaldarra, bilerako gazteenetarikoa

riekin egoteko irrikiak. Adin desberdineko bertso-
lariekin egoteak ere zer esa-
nik ez. Asko ikasten duk
Iraola bat ondoan baduk,
esaterako.

dauka librean ere aritzea, gazteok ez bai-
tugu aukera gehiegirik azken era honetan
jarduteko.

G.- Segituko duk plazaratzen? Erraza
zegok, zein dituk betiko ajeak?

J.R.- Nire nahia hori da, baina gazteak ez
du aukera handirik. Uste dut tokatzen zaiz-
kigun saioak kategoriatan gutxiagokoak di-
rela, "hutsuneak betetzea" suertatzen zai-
gu. Txapelketan ditugu aukera bakarrak.

Patxi Iraola: "Itxurazko bertsoak ateratzeko bezalaxe, bilera hauek"

Goierritarra.- Noiz eta nola hasi zineten
Zaldibiako bilerak antolatzen?

Patxi Iraola.- Hasera-hasera bezala 82ko
Txapelketa aurretik izango zen. Saio serio
eta sarri samarrekoak orduko haiek. Orain,
lehen ere biltzen ginen afari batzu eginez.
Txapelketa aurre hartan serioago beharko
hasi, pentsatzen baikenuen prestatu beha-
rra zegoela. Nik neronek parte hartu nuen
82. go Txapelketan, Oiartzunen, handik
aurreraz joan ez bagina ere.

G.- Nortzu zineten lehenengoak?

P.I.- Aipatutako Txapelketara joanda-
koak, denekin ez naiz gogoratzen, baina
dozenerditik gora izango ginen. Txapelke-
tari begira, prestatu behar horrekin, han
egiten diren lan moduetara ohitzeko eta
jartzeko. Gerora, gehiago juntatzen gara,
zaharrenok ere etortzen gara eta afaria dela
tartean...

G.- Zein izan dira biltzeko arrazoiak eta
bildutako fruituak?

P.I.- Joo, ez ginela gehiegi biltzen ikusi eta
afariak, bertso saioak,... ez da bertsotan
egiten beti, hitzegitea ere beharrezkoa da.
Zerbait behar den garaian, taldean zerbait
prestatu behar denean biltzea ona da. Gai
batzuk jartzen dira, Nikolas Zeberio ibili
da ohiz, horrek materialea ekarri izandu du



Omenduak izango diren idiazabaldar eta zaldibiarra gazteekin.

beti txintxo eta entsaiatu ere egiten da.
Bakoitzak hartzen du bere papera Donos-
tiako Bertsolari egun horretan egiten du-
gun parodiako adibidez, eta, hortxe, saio
batzu egiten ditugu.

G.- Farreginerazteko ere aurretik se-
rio-serio...

P.I.- Izan ere, hor gutxigora-behera, zer-
bait-zerbait, nondik hasi eta non bukatu
hori pentsatu beharrezkoa da. Itxurazko
bertso bat ateratzeko aurrez pentsatu behar
den bezalaxe. Buruan hartu eta hasi behar

den bezala bukaera, dena osaturik eta pen-
tsaturik ez baldin bada ere, azkenean
behintzat non gelditu behar den jakitea on-
do dago. Halako zerbait lortzen dugu bilera
hauekin.

G.- Geroztik gazte-jendea arrimatu da.
Jarraituko dute gazteok?

P.I.- Bai, nik uste dut baietz. Hor zabiltza-
te, Gerriko, Munduate noiz edo behin
etortzen duk, herorri; ez naiz denekin
akordatzeko baino, bai, nik horretan badut
federik, elkarrekin jator eta oso ondo kon-

pontzen gara eta jarraituko duten itxurak ditu.

G.- Bukatzeko: laister omenduko zaituztete Goiburu eta biok. Zer moduz dakusazu, urduri...?

P.I.- Egun horretan nola hartuko du-dan ez dakit. Berezia izango da. Ema-ten du halako erreparo bat. Pentsatzen hasten zara eta... omenaldiak ondo ikusten ditut, baina neure buruari be-giratuta, meritu eta merezimendu kontu horiek...

G.- Aizu, hala erabaki bada, izango da zerbait.

P.I.- Bai, bai, motiburik izango da, baina gure kategoria ere ez da bada... Horiek denak burura etortzen dira.



Datorren urtarrean ospatuko den omenaldirako ekintzak prestatzen ari dira bienbitartean. Liburu bat, bideo bat eta beste. Bizi osoan plazarik plaza

ibili direnei, gauzak ondo atera dite-zela opa diegu.

X.N. eta J.A.

bertsoak

Gaztea eta lan mundua

Doinua: "Pello Joxepe"

I

Ikastetxetik langabezira
ez da bide atsegina
ez da onartzen gogorik eza
edo nahi eta ezina
etxean berriz arrazoi eta
errosario berdina
"zu ere zerbait izango zinan
saiatu izan bazina".

2

Esku hutsean lan eske joan da
lautik hiru ate itxi
zerbait lortzeko asmoz bazoaz
titulu bat erakutsi
ehun aurkeztuta bakarria hartu
besteak kalean utzi
deituak asko izaten dira
baina onartuak gutxi.

3

Arduradun bat beti gainean
zuk burua ez jeisteko
lan zikinenak eta txarrenak
buzo txukuna jatzeko
hamabi ordu noiznahi lanean
non zabiltzan ez ahazteko
zenbat haztarka egin behar den
lau peza irabazteko.

4

Kontratu baten mende lanean
egun sentitik gabera
ez berritzeko arrisku latza
gaizki portatzen bazera
nahi dutenean lanean hartu
nahi dutenean kalera
nagusientzat merkantzi hutsa
beste gauzarik ez gera.

5

Langabezian daudenak berriz
kurtsiloren bat eginez
edo taberna txoko batetan
basoari eraginez
denbora libre ugari eta
nola pasatu jakin ez
eskuzko lanik behar ez bada
nor gogoratzen da hoiez?

6

Gazte ugari izan ditezke
drogarekin dabiltzanak
abenturaren bila edota
lapurretari emanak
gizartearen esanetara
ez dira makurtzen danak
nonbait saiatu beharra dauka
aukerarik ez duanak.

7

Fabrikan ere emakumea
bigarren maila baten
gizonezkoei aina aukera
ez bait zaizkio ematen
langilearen lekua berriz
makinak dihoaz jaten
langabezia noizko gainditu...
ez da erreza esaten.

8

Politikoei esanagatik
ez galdu itzaropena
aurkitzen zaila bihurtu zaigu
inork maite ez zuena
kapitalisten kontrolpean da
hori da gauza txarrena
zer etorkizun dauka gazteak
hau bada aurrerapena.

J.R. Elortza

Bertako sagardotegikoekin

Gipuzkera hedatua dagoen lurraldearen bihotzean kokatzen den Ikaztegietakoko herri hau, Bonapartek bere dialektoen sailkapenean Zegamako euskera hitzegiten denen artean sartu zuen.

Tolosako euskerarekin muga egiten duenez, honen eragina hor dago. Gainera, historian zehar, bi mende eta erdiz Ikaztegieta Tolosako Udalaren menpean egon zen eta gaur egun ere behar asko asetzen ditu bertan.

Ikaztegietakoko biztanleek berriz, euren euskera Alegikotik gertuago ikusten dute Legorretakotik baino.

Grabaketa Ikaztegieta Sagardotegian, Iturriotz baserrian egina da. Bertan bizi diren Maritxu eta Itziar Begiristainek erantzun ziztuzten inkestako galderak.

Hurrengo testua abiapuntu hartuz fonetika-fonologia eta morfosintaxiaren azterketa labur bat burutu zuen egileak 1987.eko irailean, Ikaztegieta Hiruerrietatik banatu zen urte berean.

Galdera.- ... ta sagar orrekin ze ittezue ba? Saldu, etxeako o?

Maritxu.- Danatako.

Itziar.- Asko saardotako.

G.- Ta ze ittezue, zuentzako ae, o geio, o?

M.- Saldu!

I.- Ba kanpoakode bai. Udaberrin ba... Oai saardoa itteu ta geo udaberrin ba... Ilbeltzen aurren o ola ba saardoteie iikitze deu. Maiatzen azken arte eo. Ta illuntzetan ba merienda batzuk eta ola prepaatu itteu pixkat eta geo gaieakoa enboteillatu.

G.- A bai! Eta ze, noiz aste zeate sagardoa itten eo? Ze lan itte zue ba?

I.- Ba saarrakin asiko gea. Oai aurki.

M.- Bai, ia illen azkeneako, datorren aurreneko o ola.

G.- Biltzen?


I.- Oai asko lurrea eroi da. Ta oai eroita daon saar onek ez tu balio saardotako, zeati dao aidepasatue. Eta hau bildu ta geo ondorenen eroitzeana ba ue ia saardotako.

G.- Ta gero sagar orrekin ze ittezue?

I.- Ba sardoa i eta udaberrin ba len esan dizuten bezela.

G.- Emen bertan ittezue, tolaren?

I.- Emen bertan, bai, bai. Upelak etade bertan dazkeu. Eta Errege ondorenen ba iikitzedeu saardoteie eta ba maiatzen azken alde arte. Leengo urtene jendea polliki ibilli zan. Oai enbotei-





Iturriotz sagardotegia.

llatue, enboteillatun benta beti gutxitzen aida.

G.- Bai? Jendek ez tu erosten o?

I.- Otxe, garestittu de bai ta gutxitzen aida.

G.- Zenbaten dao botille ba?

I.- Oai botille ba eundamala kobratze deu, kasko ta guzti. Bao zuk ekartze balinbazu botil utse, kaskoa, ba ordun laroitamar. Zeati aurreako urten... leen enboteillatze gendun dana txanpan botilletan. Bao oai galazi due txanpan botilletan saardoa sar-tzea ta bearda botille berrie. Ta botille be-rrie ba galestie da. Eta orrek asko iyo du.



Ikaztegiako hizkera berezia da.

Orreati o eztakiu zeati baio beintzat benta aida jesten.

G.- Eta lan asko emateu sagardoa ittek o...

I.- Bai, bai, bai asko.

M.- Gautaeun aitzea saardoa itten. Gaca.

I.- Upelak garbittu, dana udez. Udekin garbittu bear da, zipullu batekin dana pasa. Geo junta guztik danak segokin jarri, ja-rriok eta izan ez dezaten da. Geo tolaren e berriz, ba, gauen e aittu in bear izatea ta. Bai, lana badu, lana badu.

G.- Bai, ta enboteillatzek e bai!

I.- Baita, enboteillatzek e bai. Leen dana

eskuz aitze gien enbotellatzen. Oai, beste makina koxkor bat ekarri zuenda, orrekin eosoxeago. Baio leno exeita jarri ta botille betetzen an aitze gien, Jainkok dakin be-zela!

G.- Nik ustet zenbat eta makina aundi-goia ekarri, ordun da jende geio bear dala.

I.- Baa, makinaide eman in beartzaio ta kendude bai, botillek eta bakizu. Makina utsik bueltaka ibilita eze gutxi do.

Rakel Guridi

AUTO KONPONKETA — MARGOKETA

GAUR, C.B.
Karrozeria

San Prudencio · Mendizabal
Teléfono, 88 86 09

20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

GARAJE "LAZKAO"



Renault
ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO

Negu gorriak: udazken beltza



Patua, "fatum" a, halabeharra... Hitz hauek etorri zitzaizkidan burura otsail honetan "Argia" irakurri nuenean.

Hara non Fermin Muguruzak batetik (Kortatu ohiak) eta Iñaki Arkarazok bestetik (M-ak), musika talde berria osatu behar zutelako berria! Ordurako kezkatuta nengoen, zelatan, ehiztari baten gisa, edo, nahiago baduzue, nik maiteago ditut behintzat, amerikar pelikuletako ikertzaileen gisa: "jool!", pentsatu nuen nere kolporako, "hau duk jarraitu beharreko arrastoa."

Ikertzailearena egitea erabaki nuen beraz, eta ikertzaile on guztiek bezala berriro miatu nuen lehen aitatu dizuedan berria; bertan, bi zertzeladetan ipini nuen arreta:

1) Ferminen, erdi txantxetan, izen bat aipatzen zuen bere artikuluan: Permin eta Pipermin gorriak. Normalean hori irakurtzean zera bururatuko zaizue: "Jode, a ze

txorakeria!". Baina ikertzaile on batek ez du hori inoiz esan behar; eskuak gabardinenaren patrikatan sartu eta paseatzeari ekin hitz horiek gogoan. Eta ingelesez? Aiba, Red Hot Chilipapers!, tunante halakoak!. Azkarra haiz gero, merezia duk patxaran tragoska bat hurrengo tabernan!.

Tabernatik atera eta etxera itzuli nintzen, aldizkari bat hartu eta honako fitxa hau egin nuen:

-RED HOT CHILIPAPERS. Kaliforniarrak. Eraginak: Musika beltza (Sly and The Family Stone), punk-a eta Ameriketako eragindako ondorioak (hardcore-a, etab...).

Konturatu nintzen fitxa hau ez zela izugarria, baina zer egingo nuen?, taldea ere ez ez oso ezaguna.

2) Taldearen benetako izena hautatzeko, berriaz, Mikel Laboaren abesti bat hartu omen zuten iturritzat, "Gaberako aterbea"

alegia. Banekien egin behar nuena beraz, abesti hori aurkitu eta adi-adi entzun; New York zen kantuararen protagonista nagusia, N.Y eta negu gorria.

Baina, ze harreman ote zegoen Kalifornia bero eta New York hotzaren artean? Egunak joan, egunak etorri, eta galdera bera beti buruan. Halako batean aurreko taberna horren aurretik pasatzea egokitu zitzaidan eta, ze demontre! sartzea erabaki nuen, patxarana ederra zen eta zerbitzaria ez zegoen batere gaizki.

Tabernako ateruntz hurbildu nintzenean iragarki bat ikusi nuen bertan itsatsita: Paris 1990-4-11. Donostiako Bus geltokian. Goizeko 8etan. Bidaia eta sarrera: 8500 ppta. **NEGU GORRIAK**". Azpian pelikula baten iragarkia zegoen:

-“DO THE RIGHT THING”. Zuzendaria: Spike Lee. Musika: Public Enemy. Cannes-eko erakustaldian sari-

tua.

Pariser joateko ez nuen ez diru ez asti haundirik, zinema, berriz, bertan zegoen eta dexente merkeagoa zen. Baina estreina patxarana hartu behar nuen.

Zinemaratu eta sarreran Spike Lee-ren bizitzari buruzko ohizko propaganda-orria eman zidaten: 27 urte, New York-ekoa, beltza, beltzen mugimenduaren partaidea, zinemaz gain bideoak (PEren gehientsuenak) eta iragarkiak egindakoa (enpresa haundi guztiek nahi adina diru eskeintzen omen diote beren iragarkiak filma ditzan). Hau omen zen bere filmerik famatuena, EE.BB.etan eztabaida bizia sortarazi zuelarik. Ez zeukan itxura batere txarra!

Pelikula hasi zen: New York, Brooklyn auzo beltzeko kale beltz bat. Beltzak pelikula protagonista nagusienak, beltzak beraien heroiak: M. Luter King, Malcom X, Pantera Beltzak...

Zein duk hire abeslaririk maiteena, Bruce? Bai zera, Prince!

Eta saskibaloi-jokalarien artean, Larri Bird? M. Jordan!

Eta boxealarien artean? Tyson!

Beltzak, eta beraien aurka txuriak. Beltzak baldin badira gizarte horretan nagusi, zergatik ukatzen zaie boterea? Zergatik erasotzen dituzte txuriek?

Honako galderak zeuden barreiaturik pelikulan zehar, eta honen aurkako erantzun bakarra: Biolentzia. Biolentziaz amaitzen zen pelikula, eta ondoren Malcom X-ren esaldi bat: "Gizarte batek bere burua defendatzeko biolentzia erabiltzen duenean ez dut biolentzia deitzen, inteligentzia baizik".

Gogorra, ezta? Zinematik irten eta etxera bueltatu nintzen, han beste fitxa hau egin nuen:

-PUBLIC ENEMY. -New Yor-ekoak.

-Eraginak: Rap musika bereziki, musika beltza eta parean jartzen zaien edozein soinu. -Azken diska: Fear of a black planet" (planeta beltzari beldurra) 1990.

-Oharrak: Hezur muinak ere beltzak dituzte, liskarra maite dute (judutarrak, homosexualak) eta lelo nagusi bat: Fight the power! Boterea borrokatu.

Hauek ziren Negu Gorriaz neuzkan az-

tarna nagusiak, bakarrik abesti edo diska-
ren bat entzutea falta zitzaidan eta aukera hau ekaina aldean atera zuten LParekin izan nuen.

Musika eta hitzen aldetik lehen aipatu dizkizuedan eragin guztiak nabari dira: rap-a, R and Ra, hardcore-a... eta leloetan, "Euskalduna naiz eta harro nago", "Boterea borrokatu". Bideo bat ere egin dute "Radio Rahim" abestiarekin -"Do the right thing" pelikulako pertsonaia bat-
beren ideiak irudi bidez erakusteko.

Baina gauza hauek alde batera utzirik zera da garrantzitsuenak, diska oso ona dela, nire ustez Kortaruren "Kolpez Kolpe" bezain ona; badirudi ondo baino hobeto bereganatu dituztela lehen adierazitako eragin guztiak eta sorkuntza trinkoa egin dutela. Dena den, oraingoz bederen, ez omen dute zuzeneko emanaldirik egingo, Ferminen asma omen dauka eta, halere eraso sorpresak izango dira beren armak.

Beltza izan da uda bero hau, baina kontuz, negu gorria dator!

Joxan Amundarain



Autowag, s.a.

Errepide Nagusia, N-1. 419 Kma.
Tfnoak: 88 82 66 - 88 82 54

BEASAIN

ETXE - ALAI JATETXEA

☎ 88 52 55

20248 ALTZAGA
(Gipuzkoa)

HEGOA
TABERNA

Goierrri Kalea, 12 (Atzekaldea)

ORDIZIA



TXALUPA
ERRETEGIA

Arrain, marisko eta okelak parrilan

P-21 ZENTRU KOMERTZIALA Tfnoa: 88 84 07 ORDIZIA



Te pastatxoak

Kiloerdi hirin. 8 arraultz gorringo. 150 gr. azukre. 200 gr. inguru gurin. "Arralladera", egurrezkoa. Txokola-

Errezetak

tea, kokoa, basakereizak edo gindak apaingarri gisan.

Lehenbizi hirina ipini mahaiaren gainean mendi-tontor baten moduan. Erdian hirin biguina jarri eta gehitu arraultz gorringoak.

Hauek, azukrearekin batera batituko ditugu arralladerarekin eraginez. Orea edo

masa bat egin horrekin eta gorputza sendo bat hartu orduko atsedenaldi bat ematen zaio.

Hozten denean, txilindro batekin tiratu eta pasta-moztaile batek (besterik ezean edalontzi bat, adibidez), "ilargi erdi" edo borobil itxurako pastak egiten zoaz.

Aurretik koipeztutako bandeja batean sartu labean (bero- erdizka) ondoren, eta itxaron doratu arte. Behin aterata, zure gustora apaindu. Doratuagoak eta gustagarragoak ateratzekotan, batitutako arraultz gorringoarekin igurtzi bat emaezu.

Txiste eta beste

Zakurra bezala

Pernando Amezketarra idia saltzera joan zen behin Tolosara, eta sanoa al zen galdetu ziotenean:

-Bai horixe! Zakurra bezalakoa!

Erosi diote bada idi hori eta hurrengo egunean erosleak jarri du lanean: idi gizarajoa, mingaina aterata, amaska, ezin ibilirik zen laister.

Jabe berria, haserre, joan zen Pernandorengana eta eraso zion ziria sartu ziola garrasika esanez.

-Ziria? Ez gizona! Zakurra bezalakoa zela esan nizun. Jarri ezazu zakurra lanean eta ikusiko dezu behiak bezala mingaina zeinen aguro aterako duen!



Ilargiaren pisua

Egun batean, Amezketak erretorea, Pernandoren adiskide haundia, ilargiak zenbat pisatzen ote zuen pentsatzen zegoen. Hontan Fernando albotik pasa zen eta galdetu zion erretoreak:

-Pernando: ilargia hain haundia eta ederra izanik, zenbat pisatzen duen nahi nuke jakin.

Pernandok erantzun zion, galde hori erraza zela eta ilargiaren pisua libra bat zela.

-Bainan horren gutxi nola?- zioen erretoreak.

-Erraz, jauna. Ilargiak zenbat laurden ditu?

-Lau.

-Eta lau laurden ez al dira bada libra bat?

Ilargira zenbat bide?

Behin, bidean barrena zetorrela, bi praile aurkitu zituan.

-Pernando -esan zion praile haiek tako batek-, zuk gizon azkar, buru argi, bizkorren izena duzu. Esango al zeniguke hemendik ilargira zenbatsu bide dagoen?

Pernandok buruari hatz eginez erantzuten du:

-Galdera ori zail-xamarra dela derizkiot.

-Baina zu azkarra zara eta...

-Hala ere, hemendik ilargirako hori oso zaila da. Ilargitik hona balitz, zerbait esan nezake.

-Ia, bada, ilargitik hona zenbat bide dago?

-Zenbat bide dagoen, ez dakit; baina, eguerdiko hamabiak laurden gutxitan ilargitik praile bat botako balute, eguerdiko hamabiak puntutuan erretore etxean bazkari-zai legoke!

Osasuna

Ahoan aldaketak sortzen dira zahar-tzaroarekin bere estruktura guztietan: ezpain, mingain, hortz, glandulak, e.a. Geroztik eta sensibileago bihurtzen dira janari hotz-beroekin, alkoholarekin, eta sendatzen zailak dira.

Maiz dilatatzeko dira mihi-zainak eta zapora zentzua alda daiteke. Hortzak galtzea zahar-tzaroan sortzen den arazoetarikoa bat da.

Honek eragiten du jendeak hortz protesi eta postizioak jartzeak, eta egokiro ipiniak ez badira makina bat arazo sortzen dute, hala nola, urratze, zauritxoak, urdail arazoak, listua ez egitean gaizki mastekatzeko.

Hona hemen hau gerta ez dadin gure aholkuak:

1. Otordu bakoitzaren ondoren hortz garbiketa txukuna egin ahoko txoko guztietara iritsiko den zepiluarekin.

2. Bitamina eta Kalzioetan aberatsa den dieta eramatea komenigarria da, hau da, entsaladak, frutak, barazkiak, esnea e.a. eta ez azukarrak dituzten elikagaiak: txokolatea...

3. Urtean behin gutxienez dentistarengana joan eta berrikusi ahoa.

4. Ez erre, zure hortzen estetika izurratuko duzu hori bilakatuko direlarik eta zure hatsa desatsegina izango da.

5. Ez erabili zure ahoa erraminta kaja bat balitz bezala, orratzak, iltzeak e.a.

6. Erabil hortz-zeta eta ez jostorraz, txotx eta halakoak.

7. Hortz protesiaren garbiketa egokia egizu. Elikagaiak moldatu itzazu zure hortz-durara dietaren aberastasuna urritu gabe.


N. Garin

Duela gutxi -oporretan eta Zaldibin-, On Anjel Sukiarekin "Argia" aldizkarirako elkarrizketa bat egiteko okasioa izan genuen. Euskaltzale eta bizkorra bera bezelakoa, agertu zitzaigun. Elizaren buru honen honeratzeko arrazoiak, beste hiru herritarrekin apaiztu zeneko urrezko eztaia ospatzea baizik ez zen.

Elkarrizketa haren zenbait zati argitaragabe dakargu honera, izan dezaketen interesagatik. Lehenengoz zioena, garai batean euskal agerkari asko ez zirela eta merituak ere badituela gaur egun asko izango ez diren euskal aldizkarietan dabilenak.

"Harriturik nago, asko egin da euskara gal ez dadin. Halere, aurrera ateratzea zaila da. Nik ikusten ditut makina bat periodiku, batean eta bestean. Euskaraz ezik. Gutxi irakurtzen da euskeraz eta irakurtzen bada hemen", esan zuen.

Eta bere garaian?, galdera egindakoan, "Guk besterik ez genekien. Txikitxikitatiki beti euskaraz guri; nik hamabi urterarte erderaz ez nekien. Egun, hona etorri eta, euskeraz egiten da baina berehalaxe antzematen da ez dela gure lehen hizkuntza. Zaldibiko elizan egun eta sekulan ez dut erderaz egiten ikusi, dotrinak eta denak. Ez eta gerra denboran ere. Jeneralean, Goierri guztian



euskara eta batez ere Goierri sakonean. Mendi-mendiko goi-herrietan, ez hainbeste kamio ertzeko herri handiago eta komunikatuagoetan. Guk ez genuen komunikabiderik eta, hortaz, euskaldunago ginen".

Gehiago ere esan zituen, beste asko berriz ez. Zer edo zergatik, norbait bade-lako, egongo da dagoen lekuan. Gu geurearekin eta bera berearekin. Sukia urrutira iritsiko zela esan zuenak zerbait bazekien.

J. M. A.



Kirol jantzieta
espezialistak



Domingo Unanue Enparantza 5
Telf.: 88 85 18

20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

JASOTZEKO ETA GARRAIATZEKO MAKINERIA ELEKTRIKOA

- Garabi zubidunak, portale-garabiak eta erdiportale-garabiak.
- Polipasto elektrikoak.
- Mantenu automatiko osoa.



Senpere Auzoa, z/g.
Telefonia (943) 88 15 57
LAZKAO (Gipuzkoa)

ERAIKUNTZAK O. E.